

## 2014 urteko OHIKO BILTZAR NAGUSIAREN BILERA-AGIRIA

**Data:** 2014 urteko ekainaren 14a

**Hasera ordua:** 10.00 (2. deialdia)

**Amaiera ordua:** 11:00.

**Egoitzak:** Barakaldo, Bartzelona, A Coruña, **Girona** (egoitza zentrala), Huesca, Logroño, Lleida, Madril, Mallorca, Iruña, Sabadell-Terrasa, Sevilla, Valentzia, Vilanova i la Geltrú, Zaragoza.

**Bertaratuak:** 277

**Boto-eskuordetuak, edo ordezkariaren bidezko bertaratuak:** 54

### Gai-zerrenda

- 1. 2012 ekitaldiaren aurkezpena**
- 2. 2013 ekitaldiaren aurrekontuaren aurkezpena**
- 3. Galderen tartea**

### Biltzarraren Garapena

Som Energiako presidentek, Kontseilu Errektorearen izenpean, Ohiko Biltzar nagusiaren egoitza desberdinetako bertaratuei ongietorria egiten die eta Biltzar honetako garraiobideak azaltzen ditu baita jarraian gertatuko den ezohikoarenak ere.

Bi biltzarren bilera-agirien ikuskariak aurkeztutako bi hautagai bakarrak denon adostasunez aukeratzen dira: Javier Sardà (Pimeslu-ren legezko ordezkaria bazkide zbk. 9.753) eta Roger del Jesús (bazkide zbk. 54).

Kontseilu Errektoreak 2013 urteko ekitaldiaren lerro orokorrak azaltzen ditu. Lehenengo eta behin, Ana Marcok kooperatibaren eboluzio soziala laburbiltzen du:

Bazkide zenbakien eboluzioa: 5.090 izatetik 11.701 izatera.

Tokiko Taldeen II Topaketa Bartzelonan egindakoa Som Energia kooperatibaren lurralde-antolaketa lemapean.

Tokiko Taldeen eta Lan Batzordeen lan egokia.

Autoekoizpen kanpainaren garapena.

II Iraileko Eskolaren ospakizuna gaiarekin: "Eta primarik gabe, nolako proiektuak bultzatu behar ditugu?"

Talde Teknikoaren hobekuntza (4 pertsona gehiago).

2013 urteko Balantze Soziala goستن du, Mallorcako Alex Duran-ek egindakoa eta hurrengo urteotan mantentzea espero du.

Jarraian Alex Arizkunek 2013 urteko ekitaldiaren ekonomia-memoria laburbiltzen du:

Kontratu zenbakien hobekuntza galanta eta pentsatutako 4 instalazio fotovoltaikoen eta biogas plantaren amaiera.

Gardentasun ekonomikoa izateko borondatea erakustea urteko kontuak bateratzen konparaketak egin ahal izateko; Egoera-Balantzearen zenbakiak eskaintzea, eta kontuen gidaliburu txikia egitea.

Ekitaldiaren galerak (107.579,49 euro) pentsatutakoak baino handiagoak (71.342,00) urteko bigarren seihilabeteko merkatu handizkarian gertatutako prezio-igoerak direla eta, batez ere abenduan.

Gastu-partidan lan-kostuak eta amortizazio-gastuak azpimarratzen ditu. Lan-handiagotzean zorrotasuna nabarmentzen da. Hots, 2013 urtean, lan kostuak %46,86tik % 3,21era pasatu egin dira bazkideei elektrizitate-salmenta kontuan hartuta.

Gure Egoera-Balantze sinplea aipatzen da gure ondarea sorkuntza-instalazioak kudeatzen dituzten sozietateetan oinarritzen delako baita gure epe-luzerako finantziazioa bazkideen kapitalekin eta diru-ekarpenekin ere egiten da.

Gai-zerrendaren bigarren puntuan Alex Arizkunek 2014 urterako aurrekontua laburbiltzen du:

19.000 bazkide eta 22.000 kontratu lortzeko nahia da.

56.000 euro baino gehiagoko ustezko etekina aintzat hartzen da 2014 urteko lehenengo seihilabeteko merkatu handizkariaren ikuspegia aldatu egin delako baita Ezohiko Biltzar Nagusian fakturazio-sistema aldatuko delakoan dago, elektrizitatearen erosketa eta salmenta prezioaren arteko desberdintasuna saihesteko.

Jarraian, ordu-erdiko galdetzeko aldia zabaltzen da, egoitza guztietan galderak eta proposamenak planteatzeko. Aldiaren amaieran Kontseilu Errektoreak galderak erantzuten ditu.

2013 urteko kontuak eta 2014 urteko aurrekontua ontzat ematen dira eskua jasota egoitzetan hurrengo emaitzarekin:

BAI	319
EZ	0
ZURIAK	3
ABSTENTZIOAK	9
GUZTIRA	331

11:10etan bilera amaitutzat eman zen.

Gironan, 2014 urteko ekainaren 14a

PRESIDENTEA

Ana Marco

IDAZKARIA

Alejandro Arizkun

BILERA-AGIRIAren onarpena, Gironan 2014 urteko ekainaren 28a

PRESIDENTEA

Ana Marco

IKUSKARIA

Javier Sardà

IKUSKARIA

Roger del Jesús

\*\*\*\*\*

## 2014 urteko EZOHIKO BILTZAR NAGUSIAREN BILERA-AGIRIA

**Data:** 2014 urteko ekainaren 14a

**Hasteko ordua:** 11:30 (2. deialdia)

**Amaitzeko ordua:** 13:10

**Egoitzak:** Barakaldo, Bartzelona, A Coruña, **Girona** (egoitza zentrala), Huesca, Logroño, Lleida, Madril, Mallorca, Iruña, Sabadell-Terrasa, Sevilla, Valentzia, Vilanova i la Geltrú, Zaragoza.

**Bertaratuak:** 288

**Boto-eskuordetuak, edo ordezkariaren bidezko bertaratuak:** 57

### Gai-zerrenda

1. **Inbertsio-proiektuetarako irizpide berrien proposamena.**
1. **Fakturazio-sistema berriaren proposamena.**
2. **Bazkideen epe mugagabeko diru-ekarpenetarako interes berria.**
3. **Kontseilu Errektoreari baimena, egokia bada, bazkideen epe mugagabeko diru-ekarpen berriak onartzeko.**
4. **Interkooperazio-akordio desberdinen berrespena, egokia bada.**
5. **Estatutuen egoera, Kontseilu Errektorearen berrespena eta Kontu-Hartzaileak.**
6. **Galdetzeko aldia.**

### Biltzarraren Garapena

1. Nuri Palmada-k inbertsio-proiektuetan onarpenerako irizpide berriekiko dokumentua aurkeztu zuen (Gehigarri I).
  2. Josep Puig-ek fakturazio-sistema berriaren proposamena aurkeztu zuen:
    - Hileko fakturazioa
    - Urte osorako prezio finko baten ezarpenak ( $\epsilon/\text{kwh}$ ): uztailaren 1etik ekainaren 30era iraungo du eta hurrengo irizpide hauekin:
      - Potentzia-terminoa, bidesari erregulatuaren arabera, komertzializazio marjin barik.
      - Energia-terminoa kostuen zenbatespen zentzudunez kalkulatuta, %4ko epeka marjina lortzeko.
      - Etekinak %2tik jaisten badira edo %6tik igotzen badira, Kontseilu Errektoreak prezioa aldatuko du alde aurretiko hilabete osoz iragarritz.
    - Fakturatzeko kontsumoa hurrengo irizpideak jarraituz lortuko da:
      - Hileko irakurketak badaude, irakurketa hori fakturatuko da.
      - Bi hileko irakurketak badaude, irakurketarik gabeko hileko kontsumoa kalkulatu da.
      - Irakurketarik ez badago, kontsumo historikoaren edo kontsumitzailearen ezaugarrien arabera zenbatespena egingo da.
      - Bazkide bakoitzak bere irakurketa bidal dezake kalkuluan sartu ahal izateko.
      - Aldizka erregulazio bat egingo da fakturatutako kontsumoa benetako kontsumora egokitzeko.
  3. Alex Arizkunek bazkideen epe mugagabeko diru-ekarpenen ordainketa %3an mantentzeko proposamena aurkeztu zuen.
  4. Alex Arizkunek Kontseilu Errektoreari aurkeztutako baimena-proposamena aurkeztu zuen bazkideen borondatezko diru-ekarpenen jaulkipen berria, beharrezkoa izanez gero, ezartzeko, urteko likidazio-interes tasa bat, Biltzar Nagusiak urtean behin berraztertu ahal izatea, askoz jota 2 milioi €ko jaulkipena eta bazkide bakoitzeko inbertsio-muga (100 eta 2.500 € artean).
  5. Ana Marco-k interkooperazio-akordioak (Rescoop, Copérnico, REAS eta Merkatu Soziala) berretsi ahal izateko aurkeztu zituen.
  6. Dolors Clavell-ek aurreko Biltzar Nagusian ontzat ematen ziren Estatutu berrien Erregistro-egoera azaldu zuen. Gaurko araudira egokitzeko konponketa batzuk egitea eta Biltzar Nagusiaren aurrean Ana Marco-ren berrespena jartzea beharrezkoak dira.
- Jordi Punset-ek Kontseilu Errektorearen eta Kontu-Hartzaileen aurkezpena egin zituen.

7. Jarraian, ordu-erdiko galdetzeko aldia zabaltzen da, egoitza guztietan galderak eta proposamenak planteatzeko. Aldiaren amaieran Kontseilu Errektoreak erantzuten ditu.

Galdetzeko aldia amaitu ostean proposatutako neurriak ontzat ematen ziren hurrengo emaitzarekin:

**Inbertsio-proiektuetarako irizpide berriak:**

BAI	308
EZ	4
ZURIAK	1
ABSTENZIOAK	32
GUZTIRA	345

**Fakturazio sistema berria:**

BAI	330
EZ	1
ZURIAK	6
ABSTENTZIOAK	8
GUZTIRA	345

**Bazkideen epe mugagabeko diru-ekarpenetarako interes-tasa:**

BAI	310
EZ	4
ZURIAK	17
ABSTENTZIOAK	14
GUZTIRA	345

**Kontseilu Errektoreari baimena bazkideen epe mugagabeko diru-ekarpen berriak egiteko:**

BAI	326
EZ	2
ZURIAK	7
ABSTENTZIOAK	10
GUZTIRA	345

**RESCOOPekin akordioaren berrespena:**

BAI	291
-----	-----

EZ	0
ZURIAK	5
ABSTENTZIOAK	49
GUZTIRA	345

**Copernico-arekin akordioaren berrespena:**

BAI	284
EZ	0
ZURIAK	11
ABSTENTZIOAK	50
GUZTIRA	345

**REASekin akordioaren berrespena:**

BAI	281
EZ	0
ZURIAK	12
ABSTENTZIOAK	52
GUZTIRA	345

**Merkatu Sozialekin akordioaren berrespena:**

BAI	283
EZ	0
ZURIAK	11
ABSTENTZIOAK	51
GUZTIRA	345

**Kontu-Hartzaile berrien hautaketa:**

BAI	316
EZ	0
ZURIAK	13
ABSTENTZIOAK	16
GUZTIRA	345

**Kontseilu Errektorearen kide berrien hautaketa:**

Jaume Aliaga	309
Ana Marco	319

Kontseilari bihurtzeko aukeratutako lekuak hautagaien zenbakia baino txikiagoa denez, hiru hautagaiak aukeratuak izan dira.

Kontu-Hartzaile berriek zein kontseilariak euren karguak onartu zituzten.

Kargutik kendutako kontseilariak, Jordi Punset-ek, Nuri Palmadaren eta bere izenean, bazkideengandik agurtu zuten eta haiengan jarritako konfiantza eskertu zuten.

13:30etan bilera amaitutzat eman zen.

Gironan, 2014 urteko ekainaren 14a

PRESIDENTEA

Ana Marco

IDAZKARIA

Alejandro Arizkun

BILERA-AGIRIAren onarpena Gironan, 2014 urteko ekainaren 28a

PRESIDENTEA

Ana Marco

IKUSKARIA

Javier Sardà

IKUSKARIA

Roger del Jesús